



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

Sestaoko Udala.

2026 urtean Gizarte Ekintzaren arloan jarduerak garatze aldera dirulaguntzak emateko oinarri arauemaileak.

Sestaoko Udaleko alkate-udalburuak, 2026ko maiatzaren 11ko Dekretuaren bidez, Sestaoko Udalak 2026ko ekitaldian gizarte-ekintzaren eremuan jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak onartu ditu, eta honako edukia du:

"Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 23.2 a) artikuluan aurreikusitakoaren babesean, zeinak aukera ematen baitu, duten espezifikotasuna kontuan hartuta, oinarri arautzaileak deialdian bertan sartzeko, Sestaoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzaren 7.1 artikuluan aurreikusten den bezala. Ordenantza hori Udalbatzak onartu zuen, eta 2006ko ekainaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 107. zenbakian, argitaratu zen. Kontuan hartu behar da, halaber, premiazkoa denez bilkurarik egingo 2026ko maiatzaren 20ra arte, eta Alkatetzak beretzat gordetzen du beste udal-organo batzuei egindako ordezkarietara egon daitekeen edozein gairen gaineko ezagutza eta ebazpena eskatzeko ahalmena; Gizarte Politiketako eta Berdintasuneko Informazio Batzordeak 2026ko maiatzaren 8an egindako bilkuran egindako proposamen loteslearekin bat etorritik, Alkatetza honek beretzat bereganatzen duenez gai horren gaineko ezagutza eta ebazpena, honako hau xedatzen du:

Lehenengoa.- Onartzea Sestaoko Udalak 2026ko ekitaldian gizarte-ekintzaren arloan jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak, aintzat hartuta Sestaoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen udal-ordenantza, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen Eusko Legebiltzarraren abenduaren 21eko 20/2023 Legea, eta honako oinarri hauek:

LEHENENGOA. HELBURUA ETA XEDEA.

1.- Oinarri hauen xedea eta helburua da dirulaguntzak ematea Gizarte Ekintzaren arloan Sestaoko Udalaren esku-hartzea osatu eta/edo ordezkatzeko duten programak eta jarduerak sustatu eta garatzeko.

Oinarri hauen helburua da dirulaguntza bidez diruz lagun daitezkeen jarduerak garatzen dituzten entitateekiko lankidetzak ekonomikoa, eta, beraz, ez da horien xedea udalaren lokalak, materialak edo azpiegiturak lagatzea beste udal-zerbitzu batzuei dagozkien jarduerak egiteko.

2.- Programak eta jarduerak irabazi-asmorik gabe egin beharko dira 2026. urtean zehar eta Sestaoko udal-mugartea izango dute garapen-eremu.

3.- Laugarren oinarrian xedatutako irizpideekin bat etorritik, dirulaguntzetara bideratutako gehieneko zenbateko globala erakunde eskatzaileen artean hainbanatuta emango dira dirulaguntzak, betiere erakunde horiek bosgarren oinarriko eskakizun guztiak betetzen badituzte eta euren programa eta jarduketak bigarren eta hirugarren oinarrietan eskatutakoan sartzen badira. Halaber, aintzat hartuko da laugarren oinarrian ezarritako irizpidea: Sestaoko udalerrian gizarte-ekintzaren arloan jarduerak garatzen dituzten erakunde guztien parte-hartzea eta sustapena bultzatzea.

BIGARRENA. DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN PROGRAMAK ETA JARDUERAK.

Onorez zehazten diren programek eta jarduerak diru-laguntzak jaso ditzakete honako eremuetan:

1.- Adinekoentzako programak eta jarduerak: 65 urtetik gorako adinekoen elikadurari, osasunari eta egungo arazoei buruzko jardunaldi eta informazio- nahiz prestakuntza-hitzaldiak; 65 urtetik gorako adinekoei lagun egiteko boluntarioak sustatzea, bultzatzea eta trebatzea.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

2.- Prebentziorako eta sustapenerako programak Udal Gizarte Zerbitzuen eskumenen eremuan: autonomia pertsonalarekin, gizarteratzearekin eta larrialdi edo gizarte babesgabetasun egoerekin zerikusia duten beharrianak, bereziki arrisku egoeren prebentzioan eragina dutenak.

3.- Informazio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-programak herritar guztiei zuzenduak, baita gizarte-eremuan eta arlo sozio-sanitarioan lanean diharduten gizarte-eragile eta erakundeentzat egindakoak ere.

4.- Honako hauei gizarte-arreta emateko programak: adineko autonomoak edo beren ingurunea; babesgabetasun arriskuan dauden adingabekoak eta nerabeak ala horien familiak; gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak edo taldeak.

5.- Ekonomian, lanean eta gizarteaz baztertutako oinarritzko beharriari erantzuteko programak eta jarduerak, horiek guztiak arazuz ezarritako eta legezko diren gizarte prestazioak osatzeko.

6.- Beste programa eta jarduera batzuk: gizarte-arloko boluntarioak sortzea eta haien prestakuntza bultzatzen dituzten jarduerak; gizarte-bazterketaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko informazio-jarduerak eta prestakuntza-programak; toxikomaniak utzi eta errehabilitatzeko programa terapeutikoak; desgaitasun fisiko eta/edo psikikoak dituzten pertsonen aisialdirako jarduerak; immigrazioaren arloko informazio- eta prestakuntza-jarduerak. Berariaz baztertzen dira edozein arlotako formaziorako programak, lana bilatu edo hobetzeko trebakuntza helburu dutenak.

7.- Adinekoentzako zaintza-bankua. 65 urtetik gorako pertsonak zaintzeko ekimena. Zaintza horien artean, honako hauek sar daitezke: edozein motatako zereginak egiten laguntzea edo bakardadea arintzea xede duten jarduera zehatzagoak, bai aurrez aurre, bai telefonoz edo kalera ateraz. Helburua ez da zerbitzu profesional bat ordezkatzeko (etxean laguntzeko zerbitzua, lagun egiteko zerbitzua, garbiketa-zerbitzuak, eta abar); izan ere, zaintza noizbehinka, denboraldika eta modu altruistan ematea da asmoa, baita horren truke zaintzarako denbora bonoak jasotzea ere, pertsona horrek erabiltzeko ala beharra duen beste pertsona bati oparitzeko. Ekimen hau abian jartzeko, beharrezkoa da legez eraturako erakunde bat (elkartea, fundazioa, eta abar) antolatzea, horrek boluntarioak bildu, koordinatu eta trebatuko dituen figura profesional bat (gizarte-integratzailea, animatzailea edo parekoa) izatea, eta protokolo batzuk ezartzea zaintzak behar dituzten pertsonak hurbiltzeko, akordioak betetzen direla bermatuta. Parte hartzaileek dagozkien boluntariorik kontratuak formalizatuko dituzte ekimen hori garatzen duten erakundeekin, eta azken horiek erantzukizun zibilarren eta istripuen aseguru-polizak kontratatu beharko dituzte. Helburua izan behar da adineko pertsona aktiboek hain aktibo ez direnen zaintzan parte hartzeko ahalegina egitea.

HIRUGARRENA.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUERA ETA PROGRAMEN BETEKIZUNAK:

1.- Proposatutako jarduerak dirulaguntza jaso ahal izateko, hurrengo eskakizun hauek beteko dituzte:

a) Deialdi honetako Bigarren Baldintzan aurreikusitako jardueraren batekin bat etortzea.

b) Udaleko interes publikoa lortzen laguntzea, horretarako, aipatu bigarren Oinarrian zehaztutako arloetan Sestaoko Udalaren esku-hartzea ordezkatu edota osatu beharko da.

c) Teknikaren eta ekonomiaren ikuspegitik jarduera bideragarria izatea.

2.- Azaldutako eskakizun guztiak betetzen ez badira, jarduerak ez du dirulaguntzarik jasoko.

3.- Berariaz ezartzen da inola ere ez direla diruz lagunduko:

a) Diseinua, metodologia, erabiliko diren baliabideak eta/edo hartzaileak kontuan hartuta, Sestaoko Udalaren iritziz deialdi honetan planteatzen diren helburuak lortuko ez dituzten jarduerak.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

b) Herritarren artean ustez izango duten eragina kontuan hartuta, Sestaoko Udalaren iritziz kostu ekonomiko handia duten jarduerak eta programak.

LAUGARRENA. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK.

1.- Dirulaguntzen ondorioetarako onartuko dira dirulaguntzagai diren jarduerak egiteko gastu guztiak, ondasun higiezinak, altzariak eta ekipamendu teknikoa erosteko direnak salbu. Halaber, ez dute dirulaguntzarik jasoko erakunde onuraduneko langileen soldatak, gizarte-segurantzak eta bestelakoak ordaintzeko gastuek, proposatzen diren jarduerekin erakunde onuradunaren bazkide edo boluntarioen autoenplegua finantzatu nahi dela ikusten denean. 2.- Diru-laguntza jasoko duten jardueren azpikontratazio-gastuak onartuko dira honako baldintzetan:

2.- Diru-laguntza jasoko duten jardueren azpikontratazio-gastuak onartuko dira honako baldintzetan:

a).- Pertsona edo erakunde onuradunak azpikontratatu egin duela ulertuko da hirugarren batzuekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo partzialki gauzatzeko. Ez da azpikontrataziotzat joko pertsona edo erakunde onuradunak berak diruz lagundutako jarduera gauzatzeko beharrezko dituen zerbitzuak edo ondasunak kontratatzea.

Halaber, ez da azpi-kontrataziotzat joko, egin nahi den jardueraren arloan pertsona adituak eta espezialistak kontratatzea, diru-laguntzaren erakunde onuradunak ez duenean bazkiderik edo organigraman kiderik gauzatzeko gaitasun edo eskuragarritasun egokiarekin, betiere kontratatutako pertsonak erakundearen bazkideak edo boluntarioak ez direnean eta kontratatzen den pertsonak egiteko jarduera proposatutako jardueren beste elementu bat denean, baina ez bakarrik. Ildo horri jarraituz, dirulaguntzaren onuradun den erakunde honek, organigramako kide edo bazkideen bidez, zuzenean hartu eta garatuko ditu zenbait zeregin eta funtzio, hala nola ideia, jarduera diseinatzea, antolatzea, balizko hartzaileei jakinaraztea, horiek hautatzea, jarduera jarraitzea, arazoak ebaztea eta azkenean ebaluatzea. Antolaketako alderdi horiek kostu ekonomikoa izan arren, ez dira jardueraren gastu-aurrekontuan aurrez ikusten, dirulaguntzaren erakunde onuradun honek egindako ekarpenetat jotzen baitira. Kasu horietan, dirulaguntza eskatzen duen erakundeak, deialdi honen seigarren oinarrian adierazten den dokumentazioarekin batera, behar bezala beteta aurkeztu beharko du deialdi honen IV. eranskina.

b) Azpikontrata daitekeen gehieneko muga diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren kostu guztiaren zenbatekoari dagokion 100eko 50 izango da.

3.- Diruz lagun daitezkeen jarduerak egiteko ekipo, komunikazio eta lokalen funtzionamendu, mantentze-lan eta kontsumoari dagokionez, gehienez ere diruz lagundutako jardueren gastu guztien % 25 ordainduko da.

4.- Orokorrean, emango diren diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa diruz lagundutako jarduera edo programaren kostuaren %50 izango da eta diru-laguntzaren zenbatekoak, aurrekontuko gainerako diru-sarrereri gehituta, ez du inola ere eragingo diru-sarrerak gastuak baino gehiago izatea.

5.- Hala ere, deialdi honetako bigarren oinarrian dauden jarduerari eutsiz, jarduera edo programaren kostuaren %75 lagunduko da diruz, dirulaguntzak emateko organo eskudun honen iritziz, behar bezala eta berariaz justifikatzen bada helburuen artean daudela genero-estereotipoak eta -rolak gainditzea, emakumeak ahaldundutzea, erantzunkidetasuna bultzatzea eta indarkeria matxista errotik ateratzea.

6.- Era berean, deialdi honetako bigarren oinarrian dauden jarduerari eutsiz, jarduera edo programaren kostuaren %100 lagunduko da diruz, dirulaguntzak emateko organo eskudun honen iritziz, Sestaoko herritarrentzat gizarte-ekintzaren eremuan oinarritzko beharrezkoak diren egokiak badira eta garrantzi berezia badute.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

7.- Inolako erakunderi ez zaio 5.000 eurotik gorako dirulaguntzarik emango, dirulaguntzen deialdi honen esparruan Sestaoko Udalak diruz lagundutako jarduera bakarrearengatik edo jarduera-multzoarengatik.

8.- Nolanahi ere aurreko irizpideak aplikatuta, eman beharreko dirulaguntza erakundeak eskatutakoa baino handiagoa bada, gehienez ere eskatu duen zenbatekoa emango zaio erakundeari.

9.- Eman behar diren dirulaguntzen guztizko zenbatekoa eskuragarri dagoen aurrekontua baino gehiago bada, dirulaguntza guztiak ehunez berean murriztuko dira erabilgarri dagoen aurrekontu-zuzkiduraren zenbateko osoa agortu arte.

10.- Emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu erakunde onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua, ez bakarka, ez beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako edozein motatako dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera ekonomikorekin batera. Diru-sarreraren eta gastuen justifikazioa aztertu ostean, gastuen gainean diru-sarreraren soberakina balego, Sestaoko Udalak emandako dirulaguntza murriztu egingo da izandako diru-sarreraren soberakinean, eta hala behar denean, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da. Aurreko paragrafoan ezarritako itzuli beharreko baldintzapean eta dirulaguntzak bi edo Herri Administrazio gehiagok eman badituzte, itzultzeko Administrazioek emandako dirulaguntzen banaketa proportzionala aplikatuko da.

BOSGARRENA. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradun izan daiteke edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu, irabazi-asmorik ez badu eta deialdi honetan azaldutako jarduerak edo proiektuak egiten baditu. Horrez gain, ondorengo eskakizun hauek guztiak bete beharko ditu:

a) Elkarreak edo fundazioak Legez eratuak egongo dira eta, gainera, Eusko Jaurlaritzako Erregistro Berezietan edo Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuak azalduko dira. Halaber, legez eraturako pertsona juridikoek parte har dezakete, baldin eta Erregistro horietan inskribatuta ez egon arren, Estatuko Administrazio Orokorreko edo Autonomia Erkidegoetako bestelako erregistroetan izena emanda badute eta sozietatearen helbidea, egoitza edo delegazioa Euskal Autonomia Erkidegoan azaltzen bada. Edozelan ere, Erregistro Publikoko inskripzioak gutxienez urtebeteko antzinatasuna izan beharko du dirulaguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datan.

b) Sestaoko Herritarren Entitateen Udal Erregistroan behar bezala izena emanda egotea. Deialdi hau ofizialki argitaratzen den egunean udal-erregistro horretan inskribatuta ez dauden erakundeek kasuan, udal-erregistroan inskribatzeko baldintza betetzen dutela ulertuko da, baldin eta formalki eskatzen badute dirulaguntzen deialdi honetan parte hartzeko epe baldiodunean inskribatzeko, eta hartzen den udal-ebazpena erregistro horretan inskribatzearen aldekoa bada. Eskakizun hori ofizioz egiaztatuko du Sestaoko Udaleko Gizarte Ekintza eta Berdintasun Atalak.

c) Pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduera edo proiektua irabazi-asmorik gabe egitea.

d) Sestaoko Udalaren aurrean aurkeztu den izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan hasitako itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean ez egotea; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan ezarritako dirulaguntzak lortzeko debekuetan ez egotea; sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik ez izatea, eta Eusko Legebiltzarraren martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testuategina onartzen duena) arabera dirulaguntzen edo laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuarekin zigortuta ez egotea; eta Sestaoko Udalari dirulaguntza eskatzen dion jardueraren garapenean irabazi-asmorik ez izatea ere.

f) Aurretik Sestaoko2.-Se admitirán los gastos de subcontratación de las actividades subvencionadas en los siguientes términos: Udalak emandako dirulaguntzak behar bezala justifikatuak izatea. Ildo horri jarraiki, ez zaio diru-laguntzarik emango Udalaren aurreko diru-laguntza justifikatzeko duen pertsona edo erakundeari, justifikatzeko epea amaituta badago deialdi honetan eskaerak aurkezteko



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

epea amaitzen denean. Eskakizun hori ofizioz egiaztatuko du Sestaoko Udaleko Gizarte Ekintza eta Berdintasun Atalak.

h) Zuzenbide publikoko zerga-betebeharrak egunean izatea. Eskatzailea zuzenbide publikoko zerga-betebeharretatik salbuetsita dagoen pertsona juridikoa bada, salbuespen horren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

i) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

SEIGARRENA. ESKAERA.

1.- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko jarduerak garatzeko dirulaguntza jaso ahal izateko, interesdun orok bere nortasuna egiaztatu beharko du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

2.- Eskabidea pertsona juridiko batek aurkezten badu, legezko ordezkariak sinatuko du, eta ahalordetze-erregistroaren, notario-ahalordearen edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da ordezkaritza hori.

Pertsona juridikoak ahalordetzea Sestaoko Udalaren Ahalordeen Erregistro Elektronikokoan inskribatuta ez badu, dirulaguntza eskatzeko izapidea egin aurretik, ordezkaritza hori erregistratu beharko du.

Erregistroko inskripzioa "Ordezkaritza berria" izapidearen bidez egingo da. Erregistroa egin eta izapideari alta eman ondoren aurkeztuko da dirulaguntza-eskaera.

Dena dela, interesdunak ahalordea aurretik erregistratua badu, dirulaguntzaren eskaera baino ez du aurkeztu beharko, eta udalak ofizioz egiaztatuko du aurretik emandako ahalordea.

3.- Dirulaguntzaren eskaerak oinarri arauemaile hauetan I. Eranskin gisa azaltzen den eredu ofizialean aurkeztuko dira.

Aurreko paragrafoan araututako ereduak zehaztuko du zer dokumentu tratatuko diren datu-bitartekaritarako plataformei, sare korporatiboari edo horretarako prestatutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta eginez, betiere interesdunak aurka egiten ez badu. Kasu horretan, beraz, Udalak eskuragarri edo irispidean ez dituen dokumentuak soilik aurkeztu beharko dira.

4.- Dirulaguntzen deialdia eta oinarri arauemaileak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan eta Sestaoko Udalaren webgunean (www.sestao.eus) kontsulta daitezke, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean dirulaguntzen deialdiari dagokion laburpena argitaratzen denetik.

ZAZPIGARRENA. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA.

1.- Eskabideak aurkezteko hogeita hamar (30) egun baliodun daude, dirulaguntzen deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Laburpena Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez izapidetuko da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra xedatutakoarekin bat etorritz.

2.-Epe baliodunaz kanpo aurkezten diren eskaerak ezetsi egingo dira, bestelako izapiderik gabe, eta deialdi honetako dirulaguntzak emateko prozeduraren ebazpenean hala adieraziko da.

3.- Eskabideak aurkeztean, oso-osorik eta berariaz onartzen dira oinarri hauetan dauden baldintza guztiak, baita Sestaoko Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzaren daudenak ere.

4.- Eskabideak erabat osatuak ez badaude edo nahitaezko dokumentazioa ez badute, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean hutsa zuzen dezan edo nahitaezko dokumentuak erants ditzan. Ildo horri eutsiz, azalduko zaio hala egiten ez badu, eskaeran



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

atzera egin duela ulertuko dela. Nolanahi ere, uko egite hori berariaz aipatuko da deialdi honen dirulaguntzak emateko prozeduraren ebazpenean.

ZORTZIGARRENA. EBAZPENA.

1.- Eskaera guztiak jasotzen direnean, Gizarte Langileen Bulegoko buruak edo, hori ez badago, bere eginkizunak bere gain hartzen dituenak, dirulaguntza eskaeraren xede diren programen ebaluazio-txostena egingo du. Txosten horretan azalduko da deialdian zer erakundek parte hartu duten eta zer jarduera edo proiektutarako eskatzen den dirulaguntza, era berean, adieraziko da erakundeek eta jarduerak dirulaguntza jasotzeko ezarritako eskakizunak betetzen dituzten, eta, bidezkoa bada, dirulaguntzen oinarri arauemaileak aplikatuta, zer dirulaguntza dagokien. Txosten hori ikusirik, Gizarte Ekintza eta Berdintasun Ataleko buruak edo, hori ez badago, haren eginkizunak bere gain hartzen dituenak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du.

2.- Behin-behineko ebazpen-proposamena egiten denean, Gizarte Politikei, Adinekoei eta Berdintasunari buruzko Informazio Batzordeak Sestaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeari dagokion behin betiko ebazpen-proposamena egingo dio. Proposamena bat etor daiteke Saileko Burutzak egindako txostenarekin edo ez; dena delakoa, arrazoitu egin beharko da eta deialdi honetan xedatutako baldintza eta irizpideei jarraikiz egingo da.

3.- Tokiko Gobernu Batzordeak, Gizarte Politikei, Adinekoei eta Berdintasunari buruzko Informazio Batzordeak egindako behin betiko ebazpen-proposamena ikusirik, prozedura ebatziko du behin betiko ebazpen-proposamenaren ildo beretik edo horretatik baztertuz. Nolanahi ere, azkeneko kasuan, arrazoitu beharko du, eta ebazpena justifikatu oinarri hauetan eta Sestaoko Udalak dirulaguntzak emateko udal-ordenantzan xedatutako irizpideak aplikatuz.

Prozeduraren ebazpenean eskatzaile bakoitzari emandako diru-laguntzak, emateko baldintzak (hala nola diru-laguntza jasotzen duten jarduerak, ehunekoak eta diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoak, jarduerak gauzatzeko epea, justifikatzeko modua eta epea, aurkeztu beharreko dokumentazioa, etab.) eta gaitzetsitako eskaerak, baita uko egin dutenak ere eta beren motibazioa adieraziko dira.

4.- Dirulaguntza hauek emateko ebazpena gehienez ere sei hilabeteko epean erabakiko da, dirulaguntzen deialdian parte hartzeko epe balioduna amaitzen denetik zenbatzen hasita.

5.- Diru-laguntzak eman edo gaitzesten dituen ebazpenak eskatzaileei jakinaraziko zaizkie eta kontra jar daitezkeen errekurtsoak adieraziko dira.

Ebazpena Sestaoko Udaleko iragarkien oholtzan erakutsiko da hilabete batez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdi honetako diru-laguntzak emateko prozeduraren ebazpenaren laburpena eta ebazpena erakutsiko den tokia argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Sestaoko Udalak Dirulaguntzei buruzko Datu-base Nazionalari bidaliko dio emandako dirulaguntzen gaineko informazioa.

6. Erakunde onuradunek emandako dirulaguntzak onartu dituztela ulertuko da hamar egun balioduneko epean, dirulaguntzak emateko erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, Sestaoko Udalak jasotzen ez badu horien aldetik dirulaguntzari uko egiteko idatzizko adierazpenik.

7.- Diru-laguntza jaso duten erakundeek Sestaoko Udalaren berariazko adostasuna eskatu beharko dute diru-laguntza jaso duten proiektuetan aldaketa esangarriak egiteko hasierak aurrez ikusitakoarekiko. Aipatu aldaketak diru-laguntza eman duen organoak aztertuko ditu eta aldaketak onar ditzake, emandako diru-laguntzaren helburua, baldintzak eta xedea errespetatzen badira.

BEDERATZIGARRENA. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA.

1.- Oro har, Dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: lehenengo ordainketa (dirulaguntzaren % 75) dirulaguntzen ebazpenarekin batera aginduko da eta bigarrena (dirulaguntzaren gainerako % 25a),



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

erakunde onuradunak deialdi honen hamaikagarren oinarrian aipatzen den justifikazio-dokumentazioa aurkeztu ondoren.

2.- Salbuespen gisa, dirulaguntzak emateko eskumena duen organoak, dirulaguntza ematen duen ebazpenean bertan, onartu ahal izango du dirulaguntzak ordainketa aurreratu bakarrean ordaintzea, kasu bakoitzean eman den dirulaguntzaren % 100, hain zuzen ere. Salbuespen hori aplikatzeko, dirulaguntzaren erakunde onuradunak berariaz eskatu beharko du oinarri hauetako I. eranskinean dagokion atalean, eskaera horren arrazoiak azalduz; eta dirulaguntza horiek emateko organo eskudunak berariaz xedatu beharko du hori dirulaguntza emateko erabakian, baldin eta uste badu dirulaguntzaren erakunde onuradunak azaldutako arrazoiak justifikatzen dutela dirulaguntza alde aurreko ordainketa bakarrean ematea.

3.- Pertsona edo erakunde onuradunak justifikazioa aurkeztu eta Udalak onartzen duenean, dagokion dirulaguntzaren gainerako zatia ordaintzea aginduko da. Bestela, Sestaoko Udalaren iritziz, dirulaguntzaren jarduerak edo proiektuak garatzeko orduan behar bezala justifikatutako gastuen gainean gehiegizko diru-sarrerak izanez gero, pertsona edo erakunde onuradunak itzuli behar duen zenbatekoa xedatuko da. Justifikazioa onartu eta, hala badagokio, dirulaguntzaren gainerako zatia ordaintzeko edo zenbatekoren bat itzultzeko errekerimendua egiteko ebazpena alkate-udalburuak edo Gizarte Ekintza arloko gaiak ebazteko eskuordetu den udal-organismoak hartuko du. Horretarako, alde aurretik Gizarte Ekintza eta Berdintasun Atalak eta Kontu-hartzailetzak txostenak egin beharko dituzte. Sestaoko Udalak ebazpena Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari bidaliko dio, argitaratzeko.

HAMARGARRENA. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek hurrengo betebeharrak izango dituzte:

a) Deialdi honetako arauak zehatz-mehatz betetzea, baita dirulaguntzak emateko udal-ebazpenean ageri diren gainerako baldintzak ere.

b) Dirulaguntza bere helburuarekin erabiltzea. Ildo horretatik, ulertuko da dirulaguntza ez dela erabili eman zen helbururako, bai dirulaguntzaren eskabidean azaldu ez diren jarduerak gauzatzen diren kasuetan, bai eskabidean jasotako jarduera guztiak gauzatzen ez direnean. Kasu horietan, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 887/2006 Errege Dekretuaren 91. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Sestaoko Udalak ofizioz hasiko du administrazio-espediente, emandako dirulaguntzaren xedea zenbateraino bete ez den zehazteko. Espediente horretan, dirulaguntzaren eskaeran azaldu ez diren jardueren edo, hala badagokio, eskaeran azaldu arren, egin ez diren jardueren merkatu-kostu ekonomikoaren zenbatespena egingo da. Zenbatetsitako kostu ekonomiko horren zenbatekoa erakunde onuradunak dirulaguntzaren eskabidean aurkeztutako gastu-aurrekontutik kenduko da, eta ondoriozko zenbatekoa izango da eman beharreko dirulaguntza kalkulatzeko kontuan hartuko dena, deialdi honen laugarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera. Ez-betetzearen maila zehazteko aipatutako espediente hastean, dirulaguntzaren erakunde onuradunari entzungo zaio, egokitze jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

c) Diru-laguntza ematen den jarduera garatzeko beharrezkoak diren baimenak, publikoak edo pribatuak, lortzea; diru-laguntza jaso duten jarduerak edo proiektuak antolatze eta egiteko edozein elementuri eragiten dion indarreko lege-araudia betetzea; beharrezkoak diren erantzukizun zibilarren eta istripuen aseguru-polizak sinatzea; eta, laburbilduz, diru-laguntza jaso duten jarduera edo proiektuak egitetik ondoriozta daitezkeen erantzukizun guztiak onartzea; Sestaoko Udala hori buruz izandako edozein erantzukizunetatik salbuetsia izango da.

d) Berariaz adieraztea jarduerak edo proiektuek Sestaoko Udaleko Gizarte Ekintza Arloaren dirulaguntza dutela. Berariazko aipamen hori dirulaguntza jaso duen jarduera edo proiektua hedatu edo argitaratzeko orduan erabilitako komunikabide guztietan, idatzizko nahiz ikus-entzunezkoetan, egingo da. Babesaren aitorpen hori, bai eta diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak buruz edozein bitarteko egindako edozelako dokumentu, komunikatu edo informazioaren edukia ere. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

Udal-babesa derrigorrez jasoa geldituko da bakarrik diru-laguntza ematearen erabakia jakinarazten den dataren ondoren hedatutako jardueretan.

e) Sexismorik gabeko hizkera eta estereotiporik gabeko irudiak erabiltzea diruz lagundutako jarduera eta programen komunikazio, publizitate eta hedapen-elementu guztietan.

f) Sestaoko Udalak egin behar dituen egiaztapen-jarduerak onartzea eta diruz lagundutako jarduera edo proiektuak direla-eta, eskatzen den informazio osagarria hari eskuratzea.

g) Sestaoko Udalari jakinaraztea diruz lagundu dituen jardueretarako lortu diren bestelako dirulaguntza edo laguntza ekonomikoak, edozein erakunde publiko edo pribatutatik datozenak. Jakinarazpena ezagutu bezain pronto egin beharko da eta diru-laguntza edo laguntza bezala lortutako zenbatekoa adierazi beharko da, baita erakunde emailea ere.

h) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18.3 artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 3 b) eta 8.2 artikuluetan – 8.1 c) artikuluari lotuta – ezarritakoaren arabera, oinarri hauek aplikatuz 5.000 euroko edo gehiagoko dirulaguntza jasotzen duten erakundeek, eta, gutxienez, urteko diru-sarrera guztien % 40 laguntza edo dirulaguntza publikoa bada, 19/2013 Legearen II. kapituluan publizitate aktiboari buruz ezarritako xedapenak bete beharko dituzte.

i) Oinarri hauetako c), d), e), f) eta g) idatz-zatietan aipatzen diren betebeharren urraketa Sestaoko Udalak bideratu beharreko ofiziozko administrazio-espeditentea ikusi ondoren erabakiko da. Espediente horri dagokionez, dirulaguntzaren erakunde onuradunari entzungo zaio, egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzan. Espediente horretatik ondorioztatzen bada erakunde onuradunak ez dituela betebeharrak bete, emandako dirulaguntza ehuneko hamar (% 10) murriztuko da urratu den atal horietako bakoitzarengatik.

HAMAIKAGARRENA. JUSTIFIKAZIOA.

1. Dirulaguntza jaso duen jarduera edo proiektua amaitutakoan, erakunde onuradunak dirulaguntza behar bezala erabili duela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

2.- Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 72.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, ezarritako baldintzak betetzen direla eta diru-laguntza ematean aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, erakunde onuradunak Justifikazio-kontu Sinplifikatu bat aurkeztu behar du, oinarri hauen V. eranskineko ereduaren arabera. Dirulaguntzaren Justifikazio-kontu Sinplifikatu hori, Oinarri hauetan araututakoarekin bat, erakundea onuradunaren ordezkari den pertsona fisikoak sinatu beharko du, eta informazio eta dokumentazio honekin batera aurkeztuko da:

a) Jardueren memoria zehatza, emaitzen ebaluazioarekin. Memoria horrek, jarduerak zehatz-mehatz identifika daitezkeen hartzaileak dituztenean, hartzaileen kopuruari buruzko informazioa jaso beharko du, sexuaren arabera banatuta. Horrez gain, jarduerak emakume eta gizonen arteko berdintasunean izan dezaketen eraginari buruzko informazioa ere jasoko da.

b) Egindako jardueren ondorioz izandako gastuak sailka zerrendatuta, eta hartzekodunaren identifikazioa, zenbatekoa eta jaulkipen-data adierazita. Zerrenda horri fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak erantsi beharko zaizkio, eta horien guztizko zenbatekoa, gutxienez, Sestaoko Udalak emandako dirulaguntza ekonomikoaren berdina izango da. Halaber, dokumentu horiek originalak direla eta beste dirulaguntza publiko edo pribatu batek estaltzen ez dituela dioen berariazko adierazpena egin beharko da.

c) Diruz lagundutako jarduerak finantzatu dituzten beste diru-sarrera edo diru-laguntzen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

d) Jarduera egiteko egin diren ikerketen, programen, argitalpenen, kartel iragarleen eta idatzizko dokumentazioaren nahiz dokumentazio grafikoaren ale bana. Horietan berariaz agertu beharko da Sestaoko Udalaren Gizarte Ekintza Arloak emandako babesak, deialdi honen hamargarren oinarrian aurrez ikusitako baldintzetan.

3.- Ziurtagiriek halabeharrez helburuak eta jarduerak betetzeko gastuei dagozkienak izan beharko dute, diru-laguntzaren eskaerari jarraiki. Ez dira onartuko xede desberdinak betetzeko ziurtagiriak.

4.- Gastuak egiaztatzeke dokumentazioa onar dadin, 2026. urteko data izan beharko du.

5.- Pertsona edo erakunde onuradunek jarduerak azpikontratatu izana justifikatzeko dokumentuak onartuko dira oinarri hauetan xedatutako gehieneko mugen barruan.

6.- Justifikazio-kontu Sinplifikatua aurkezteko epea. Dirulaguntza hauen onuradun diren Pertsona juridikoek, ordezkari dituzten pertsona fisikoek bidez (ordezkaritza egiaztatuta egongo da Sestaoko Udaleko Ahalordeen Erregistro Elektronikokoan), 2027ko otsailaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dute Sestaoko Udaleko Erregistro Elektronikokoan Justifikazio-kontu Sinplifikatua eta oinarri honen 2. puntuan aipatzen den gainerako dokumentazio guztia. Erakunde onuradunek justifikazio-dokumentazioa azaldutako epearen barruan eta moduan aurkezteko eskakizuna zehatz-mehatz betetzen ez badute, eskubidea galduko dute, bai eskuratutako zenbatekoen gainean, baita kobratzeke dituztenen gainean ere. Halakoetan, lehenengoak itzuli beharko dira ezinbestez. Adierazitako dokumentazioa aurkezteko eskakizuna betetzeak ez du emango, berez, dirulaguntza kobratzeko behin betiko eskubiderik. Horretarako, justifikazioa behin betiko onartu beharko da lehenik.

Dirulaguntzen onuradun diren pertsona fisikoek aurreko ataleko justifikazioa Sestaoko Udaleko Erregistro Elektronikokoan edo Sestaoko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango dute, eta aurreko paragrafoan definitutako epe eta baldintzak aplikatuko zaizkie.

7.- Sestaoko Udalak, diru-laguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeke arrazoizko ebidentzia lortze aldera, aurkeztutako Justifikazio-kontu Sinplifikatuan jasotako gastuen egiaztagiria bidaltzeko eskatu ahal izango dio diru-laguntzaren onuraduna den erakundeari. Horrek 10 egun balioduneko epean bete beharko du errekerimendu hori betetzeko, formalki jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita. Erakunde onuradunak errekerimendu horri ez erantzutea dagozkion betebeharren ez-betetzetat hartuko da. Hortaz, dagoeneko jasotako zenbatekoak eta, hala badagokio, kobratzeke daudenak jasotzeko eskubidea galduko du eta, ondorioz, jasotako guztia itzuli beharko du.

HAMABIGARRENA. BESTELAKO BALDINTZAK.

Lehenengoa.- Dirulaguntzen itzulketari, zehapen-araubideari eta oinarri hauetan aurreikusi ez den beste edozein alderdiri dagokienez, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Sestaoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen udal-ordenantza; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamendua onartzen duena, eta Eusko Legebiltzarraren abenduaren 21eko 20/2023 Legea, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duena.

Bigarrena.- Oinarri hauen xede diren programak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak 2026rako luzatutako Udal Aurrekontuko 2310.481.04 «Dirulaguntza asistentzialak» aurrekontu-partidaren kargura emango dira. Partida horren esleipenak berrogei mila euroko kreditua du.

Hirugarrena.- Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da dagokion ekitaldian dirulaguntza horretatik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Laugarrena.- Datuen babesa.

Tratamenduaren arduraduna.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

Dirulaguntzen deialdi hau izapidetzean jasotzen diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Sestaoko Udala izango da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua eta Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako manuak betez.

Tratamenduaren helburua.

Tratamenduaren helburua da Sestaoko Udalak Gizarte Ekintzaren eremuan egiten duen esku-hartzea osatu edo ordezkatzeko dituzten programa eta jarduerak bultzatu eta garatzea.

Tratamenduaren legitimazioa eta oinarri juridikoak

Datu pertsonalen tratamendua Udalari esleitutako botere publikoen egikaritzan oinarritzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25. artikulua araberak.

Tratamenduaren oinarri juridikoa honako hauetan dago jasota: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan; Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legean; eta Sestaoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzan.

Datu-bitartekaritza

Sestaoko Udalak, legez esleituta dituen eskumenak baliatuz, elektronikoki kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu beste administrazio batzuetatik datozen dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Nolanahi ere, Udalak egiaztapen- eta/edo kontrol-lanak egin ahal izango ditu, eta legez agindutako prozedurak izapidetzeko, kudeatzeko eta ebazteko beharrezkoa den edozein dokumentu eskuratu ahal izango du.

Publizitatea

Sestaoko Udalak, dirulaguntzaren deialdia onartu ondoren, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera (aurrerantz, BDNS) bidaliko du oinarriari, programari eta aurrekontu-kredituari buruzko informazioa, bai eta horien xede edo helburuari buruzkoa ere. Ondoren, deialdia ebatzi ostean, Udalak onuradunen zerrenda, esleitutako eta benetan jasotako zenbatekoa eta, hala badagokio, itzultze- eta zehapen-ebazpenak jakinaraziko ditu.

Edozein pertsona eta/edo administrazio kontsultatu ahal izango du BDBNra igorritako informazioa, DLOren helburua gardentasuna eta iruzurraren aurkako borroka sustatzea baita.

Halaber, Udalak emandako dirulaguntzen eta/edo laguntzen zenbatekoari, helburuari edo xedei eta onuradunari buruzko datu pertsonalak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan eta udalaren webgunean eta Sestaoko Udalaren Gardentasun Atarian (Sestao Zabaltzen) argitaratuko dira; hori guztia, DLOn, abenduaren 9ko 19/2013 Legean (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) eta apirilaren 7ko 2/2016 Legean (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) jasotako legeko betebeharrekin bat etorriz.

Datuak lagatzea

Udalbatzako kideek eskubidea izango dute alkatearen eskutik Udalaren zerbitzuen esku dauden aurrekari, datu edo informazio guztiak jasotzeko, beren eginkizuna betetzeko beharrezkoak badira. Datu horien artean daude dirulaguntzak emateari buruzko datuak.

Gainera, eta Udalari eska dakiokkeen gardentasunaren ondorioz, datuak interes publikoaren izenean artxibatzeko edo estatistikak egiteko tratatu ahal izango dira.

Erabaki automatizatua.



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

Dirulaguntzen eskatzaileen datu pertsonalak ez dira automatikoki tratatuko; hala ere, Erregistro Sisteman, espedienteen kudeatzailean, Sestaoko Udaleko Kontabilitate Sisteman eta, beharrezkoa izanez gero, Ahalordetzeen Erregistro Elektronikokoan sartuko dira. Horren helburua deitutako dirulaguntzak izapidetu eta kudeatzea baino ez da.

Datuen jatorria.

Datu pertsonalak interesdunak berak emango ditu; hala ere, interesdunak aurka egiten ez badu, Udalak interesdun horren dokumentuak beste administrazio publiko batetik ere eskuratu ahal izango ditu.

Datuen hartzaileak

Tratatutako datu pertsonalak BDNSri jakinaraziko zaizkio.

Datuen babesaren arloko eskubideak eta erreklamazio-bideak

Interesdunak Sestaoko Udalaren aurrean datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubidea erabili ahal izango du Udal Erregistroan (Kasko plaza z.g., 48910 Sestao, Bizkaia), Sestaoko Udalaren egoitza elektronikokoan (<https://www.sestao.eus/eu-ES/Izapideak/Oriak/procedimiento-detalle.aspx?id=593bdec5-c9ac-e211-b9d8-00237d32158c>) edo Administrazio Publikoaren Erregistroaren arloko Laguntza Bulegoan Sarean.

Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3, 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba).

Tratatutako datu pertsonalen eremuak

Sestaoko Udalak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako eskumenak garatuz eta deialdi honetan eskatzen diren baldintzak egiaztatzeko helburuarekin, honako datu-eremu hauek tratatuko ditu:

☒	Oinarrizko datuak: Izen-abizenak.
☒	Identifikazio-datuak: NAN/AIZ.
☒	Auzotasun-datuak: Errolda agiria.
☒	Lokalizatzeko datuak: helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.
☒	Datos de representación: Nombre y apellidos del poderdante y apoderado, DNI/NIE y poder de representación (notarial, apud acta...)
☒	Jardueraren datuak: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin egunean egotea, Sestaoko Udalarekin egunean egotea, dirulaguntzak jasotzeko aukera kentzen dion ebazpen irmo baten bidez zehapenik jaso ez izana, dirulaguntzen onuradun izateko debekuaren kausan sartuta ez egotea, sexuagatik bereizkeria dela-eta zigor penal edo administratiborik jaso ez izana eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera dirulaguntzen edo laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuarekin zigortua ez izatea.
☒	Bankuko datuak: Hartzekodunaren fitxa.
☒	Hirugarrenaren datuak (jardueren arduraduna): Oinarrizko datuak: Izen-abizenak. Harremanetarako datuak: Telefonoa



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

**I. ERANSKINA
DIRULAGUNTZA-ESKAERA, SESTAOKO UDALERRIAN GIZARTE EKINTZAREN ARLOAN
JARDUERAK EGITEKO. 2026. URTEA**

Erakunde eskatzailearen datuak

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK			
IZENA		IFK	
Sozietatearen egoitzaren helbidea Sestaon			
Jakinarazpen ofizialetarako erakunde eskatzailearen helbidea.			
Telefonoa		FAXA	
Posta elektronikoaren helbidea:			
Eratze-data		Deialdi honetako bosgarren Oinarriko a) atalean aipatzen den Erregistro Publikoko inskribapen-data	
		Sestaoko Herritarren Entitateen Udal Erregistroan egindako inskripzio-data.	
JARDUEREN ERANTZULE DEN PERTSONAREN DATUAK			
IZENA		Telefonoa	
Posta elektronikoaren helbidea:			
DIRU-LAGUNTZARA AURKEZTUTAKO JARDUEREN IZEN-ZERRENDAA			
1.			
2.			
3.			
ESKABIDE HAU SINATZEN DUEN AHALDUNAREN DATUAK			
IZENA			
Entitatean duen kargua			

Diru-laguntzarako aurkeztutako jardueraren/ren datuak



Jarduera bakoitza azaltzen duen dokumentu bat aurkeztuko da:

JARDUERAREN DATUAK.			
Izena			
Deskribapena			
Jarduerak bilatzen dituen helburuak			
1.			
2.			
3.			
4.			
Nori zuzendua*			
Egiteko-datak:		- Gauzatze-tokia:	
Espero diren emaitzak			
ERABILIKO DIREN BALIABIDEAK			
Giza-Baliabideak:			
Baliabide teknikoak			
BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK			

* Gutxi gorabeherako hartzaileen kopurua adieraziko da.

Jardueraren/ren gastu eta sarreraren aurrekontua:

JARDUERAREN GASTUEI DAGOKIEN AURREKONTUA.		
KONTZEPTUA	XEHETASUNAK	ZENBATEKO A (Eurotan)
Zerbitzuak		
Materiala		
Publizitate- eta zabalkunde-tresnak		
Aseguru polizak		



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

Bestelako gastuak		
GASTUAK GUZTIRA (Euro)		_____ €

JARDUERAREN DIRU-SARREREN AURREKONTUA		
KONTZEPTUA	XEHETASUNAK	ZENBATEKOA (Eurotan)
Entitatearen sarrerak edo bazkideen kuotak		
Jasotako bestelako diru-laguntza publiko edo pribatuak		
Bestelako sarrerak		
DIRU-SARRERAK GUZTIRA (Euro)		_____ €

JARDUERA EGITEKO SESTAOKO UDALARI ESKATZEN ZAION DIRU-LAGUNTZA EKONOMIKOA:	_____ €
--	---------

DIRU-LAGUNTZA ORDAINKETA AURRERATU BAKAR BATEAN EMATEKO ESKATZEN DU (Adierazi Bai edo Ez):	_____
--	-------

Diru-laguntza ordainketa aurreratatu bakarrean emateko eskariaren arrazoiaren azalpena:

INFORMAZIOA ESKURATZEKO AUKERARI AURKA EGITEA

- ☐ Ez dut nahi Sestaoko Udalak ondorengo informazio hau lortzea:
- ☐ Eskabide hau sinatzen duenaren nortasun-datuen egiaztatpena.
 - ☐ Sestaoko Udalaren ahalordetzeen erregistroa edo notario-ahalordea.
 - ☐ Egoitza fiskala eta soziala Sestaoko udalerrian
 - ☐ Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Erregistro Orokorreko inskripzioa edo, halakorik ezean, dirulaguntzen oinarriak argitaratu baino urtebete lehenagotik gutxienez, Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Berezian eginikoa.
 - ☐ Sestaoko Herritarren Entitateen Udal Erregistroko inskripzioa.
 - ☐ Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan ezarritako dirulaguntzak lortzeko desgaitasun/debeku-egoerarik ez izateari buruzko ziurtagiria.
 - ☐ Sestaoko Udalarekin ordainketak egunean izatea egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - ☐ Dagokion Ogasun Publikoaren ziurtagiria, betebeharrak ordainduta izatea egiaztatzen duena. Zerga-betebeharretatik salbuetsita egonez gero, salbuespena egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - ☐ Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiria, betebeharrak ordainduta izatea egiaztatzen duena.





Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

Honako hauek ekartzen ditut:

☐ Identifikazio Fiskaleko Kodearen fitxa.

☐ Estatutuak.

☐ Hala badagokio, dirulaguntzen deialdian erakunde eskatzailearen izenean eta haren ordezkari gisa jardun ahal izatea egiaztatzen duen dokumentua.

☐ Elkartea edo fundazio direnek: Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorrean edo Erregistro Berezian, Estatuko Administrazio Orokorrean edo administrazio autonomikoetan izena emanda egotea egiaztatzen duen agiria, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu baino urtebete lehenagotik gutxienez.

☐ Hartzekodunaren fitxa behar bezala bete da dagokion dirulaguntza ordainketa jasotzeko (deialdiaren III. eranskinean xedatutako ereduarekin bat).

Lehenago zerrendatutako dokumenturen bat lehenago eman bazaio Sestaoko Udalari, aurkeztu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira eta aldaketarik izan ez bada, pertsona edo erakunde eskatzaileak ez du berriro aurkeztu beharrik izango. Hala eta guztiz ere, ustezko horietan pertsona edo erakunde eskatzaileak berariaz adierazi beharko du dokumentu horiek aurkeztu zituen data eta zer prozeduratarako entregatu ziren. Gainera, aldaketarik ez dutela izan adieraziko da.

☐ Pertsona edo erakunde eskatzailea Sestaoko Udalaren aurrean izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan hasitako itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean ez dagoela adierazten duen aitorpena (deialdi honen II. eranskinean ezarritako ereduaren arabera).

☐ Pertsona edo erakundea sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik ez duela adierazten duen aitorpena (deialdi honen II. Eranskinean ezarritako ereduaren arabera).

☐ Pertsonak edo erakundeak Sestaoko Udalari eskatutako dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzearekin irabazi-asmorik ez duela adierazten duen adierazpena (deialdi honen II. Eranskinean ezarritako ereduaren arabera).

☐ Aditu eta espezialistak kontratatu behar badira: Deialdi honen IV. Eranskinean ezarritako ereduaren arabera adierazpena.

☐ Adierazten dut ordezkatzeko dudako erakunde eta/edo elkarrekin honako betekizun hauek bere gain hartuko dituela:

☐ Xede-den jardueren arduradunari jakinarazi bere izen-abizenen eta harremanetarako telefonoaren tratamendua beharrezkoa dela.

☐ Dirulaguntzaren xede den helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo jokabidea izan.

☐ Udalari justifikatu betekizunak eta baldintzak bete direla, bai eta dirulaguntza hau ematea edo baliatzea arrazoitu duen jarduera egin eta bere helburua ere erdietsi dela.

☐ Udalak behar dituen egiaztapen-jarduketak guztiak gauzatu.

☐ Organo emaileari edo erakunde kolaboratzaileari jakinarazi beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Jakinarazten da formulario honen bidez pertsona fisikoek emandako datu pertsonalak Udalak tratatuko dituela, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren arloan Udalaren ekimena osatzen eta/edo ordeztzen duten programak eta jarduerak sustatzeko eta garatzeko. Hori guztia, hau arautzen duten Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa, aurrerantzean, DBEO) 13. artikulua erekin; eta. abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

(Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, aurrerantzean, DBLO) 11. artikularekin bat.

Erakundearen, eta/edo elkartearen datuen gainean egindako tratamendua babesik gabe dago, araudi erregulatzaileak, DBEOk eta DBLOk pertsona fisikoen datu pertsonalak soilik babesten dituztelako. Hala ere, jakinarazten dizugu erakundearen eta/edo elkartearen ordezkariaren izen-abizenei eta karguari eta jardueren arduradunaren izen-abizenei eta telefonoari buruzko datuak, Udalak bakarrik tratatuko dituela Udaltzatek diruz lagundutako jarduerak egiaztatzeko, gainbegiratzeko eta/edo kontrolatzeko.

Datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa honako hauek dira: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa (aurrerantzean, DLO); 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena; 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Eusko Legebiltzarrarena, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa, eta Sestaoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen udal-ordenantza.

Erakundearen eta/edo elkartearen ordezkariaren eta jardueren arduradunaren datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, honako hauek izango dira oinarri juridikoak: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Aplikatzekoa den araudian xedatutakoaren arabera, Gizarte Ekintza, Ogasuna eta Ondarea, Diruzaintza eta Diru-bilketa eta Kontu-hartzailetza arloetako udal-langileek tratatu ahal izango dituzte zure datu pertsonalak, eta salaketa edo ikerketa egonez gero, Datuak Babesteko Espainiako Agentziari eta, hala badagokio, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari jakinarazi beharko zaizkio. Ez dago inolako asmorik zure datu pertsonalak hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde batera transferitzeko.

Halaber, jakinarazten dizugu ezen, Udalak emandako dirulaguntzen edo laguntzen onuradunei buruzko datu pertsonalak, hurrenez hurren, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean eta udalaren webgunean edo Sestaoko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratuko direla; hori guztia, DLOn, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean jasotako legezko betebeharrekin bat etorritik.

Zure datu pertsonal guztiak gutxienez lau urtez gordeko dira, oinarrietan deitutako dirulaguntza ordaintzen denetik kontatzen hasita.

Zure datuen titularra zaren aldetik, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubidea erabili ahal izango duzu Sestaoko Udaleko Erregistroan (Kasko plaza z.g., Sestao, Bizkaia). Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3a, 01.008 Vitoria-Gasteiz, Araba).

dizugu ez dagoela erabaki automatizaturik zure datu pertsonalen tratamenduan, eta ez dela ondorengo tratamendurik aurreikusten.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Sestaoko Udaleko Tratamendu Jardueren Erregistrora jo dezakezu.

.....n, 2026koarenan

Sin: _____

II. ERANSKINA
DIRU-LAGUNTZAK LORTZEKO DEBEKUETAN ERAKUNDE ESKATZAILEA SARTUA EZ DAGOELA
ADIERAZTEKO AITORPENAREN EREDUA

..... jaun andreak, NAN zenbakia duenak,
..... erakundearen izenean (2026. urtean gizarte-
ekintzaren eremuan jarduerak egiteko dirulaguntzak eskatzeko Sestaoko Udalaren aurrean aurkeztutako
dokumentazioak egiaztatzen den moduan), ADIERAZTEN DU ERAKUNDE HORI ez dagoela Sestaoko
Udalaren aurrean aurkeztzen den izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan hasitako itzulketa-
edo zehapen-prozeduraren batean sartuta; ez dagoela dirulaguntzak lortzeko debekuen eraginpean; eta



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

ez dagoela zigortuta dirulaguntzen edo laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuarekin, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen duen Eusko Legebiltzarraren martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera,; eta, azkenik, eta ez duela irabazi-asmorik Sestaoko Udalari dirulaguntza eskatzen dion jardueraren garapenean.

..... n, 2026koaren an.

jaunak/andreak sinatua

III. ERANSKINA -HARTZEKODUNAREN FITXA
HIRUGARRENAK BETE BEHARREKO DATUAK

ADI: Belztuta dauden atalak derrigorrezkoak dira, hauek bete gabe ez da fitxarik onartuko.

Diligentzia: Behean sinatu duenak zehaztutako datuen erantzukizuna – hala datu orokorra nola bankukoena – hartu du. Datuek ordainketak zein kontu eta FINANTZA ERAKUNDETAN egin behar diren adierazten dute, eta horrenbestez, Sestaoko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango haietan gertatutako akats nahiz hutsegiteek eragindako ondorioetan.

IZEN DEITURAK: _____

NAN-IFK: _____

HELBIDEA: _____

UDALERRIA: _____ **PK.** _____

Posta elektroniko helbidea _____ **TFNOA**

TOKIA ETA DATA _____

HIRUGARRENAREN SINADURA ETA ZIGILUA

BANKU-ERAKUNDEAK BETE BEHARREKO DATUAK

Arestian izendatutako pertsona hurrengo banku-kontuaren titularra dela ziurtatzen dugu:

ERAKUNDEA _____ **KODEA(8-11)** _____

IBAN(24-34) _____

TOKIA ETA DATA _____

BANKU-ERAKUNDEAREN SINADURA ETA ZIGILUA



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

**IV. ERANSKINA
ERAKUNDE ESKATZAILEAREN BAZKIDEAK EZ DIREN PERTSONA ADITUAK ETA
ESPEZIALIZATUAK KONTRATATZEKO ADIERAZPEN-EREDUA**

..... jaunak/andreak (nortasun-agiri nazionalaren zenbakia:), erakundearen izenean (ordezkaritza egiaztatua 2026. urtean gizarte-ekintzaren eremuan jarduerak egiteko dirulaguntzak eskatzeko Sestaoko Udalaren aurrean aurkeztutako dokumentazioan) honako hau adierazten du:

Lehenena.- Erakunde honek aipatu deialdian parte hartzeko aurkeztutako jarduera/k garatzeko, beharrezkoa da jarduera hartan/haietan aditu eta espezializatu den/diren pertsonak kontratatzea, erakunde honek ez baitu lan hori era egokian burutzeko gaitasunik edo egiteko modurik duen kiderik.

Bigarrena.- Xede horretarako kontratatutako pertsonak ez dira erakundearen bazkideak, ezta boluntarioak ere.

Hirugarrena.- Pertsonak kontratatzen diren jardunaldiak/hitzaldiak/jarduera didaktikoak/aholkularitza proposatutako jardueraren barruan daude, baina ez dira ekintza bakarrik. Ildo horri jarraikiz, dirulaguntzaren onuradun den erakunde honek, organigramako kide edo bazkideen bidez, zuzenean hartu eta garatuko ditu zenbait zeregin eta funtzio, hala nola ideia, jarduera diseinatzea, antolatzea, balizko hartzaileei jakinaraztea, horiek hautatzea, jarduera jarraitzea, arazoak ebaztea eta azkenean ebaluatzea. Antolaketako alderdi horiek kostu ekonomikoa izan arren, ez dira jardueraren gastu-aurrekontuan aurrez ikusten, dirulaguntzaren erakunde onuradun honek egindako ekarpenetat jotzen baitira.

Hori guztia azaltzen da Sestaoko Udalak erakundeak proposatutako jarduerak ontzat emateko, dirulaguntzen deialdia arautzen duen laugarren oinarrian, 1. eta 2. idatz-zatietan aurreikusitakoaren arabera.

Sestaon,2026koarenn.
jaunak/andreak sinatua

**V. ERANSKINA
JUSTIFIKAZIO-KONTU SINPLIFIKATUA**

(Sestaoko Udalak diruz lagundutako jarduera/programa bakoitzeko Justifikazio Kontu Sinplifikatu bat aurkeztuko da).

..... jaunak/andreak (nortasun-agiri nazionalaren zenbakia:), erakundearen izenean (ordezkaritza egiaztatua 2026. urtean gizarte-ekintzaren eremuan jarduerak egiteko dirulaguntzak eskatzeko Sestaoko Udalaren aurrean aurkeztutako dokumentazioan) honako hau adierazten du:

1.- JUSTIFIKAZIO-KONTU SINPLIFIKATU HONI DAGOKION PROGRAMAREN IZENA, 2026an GIZARTE-EKINTZAREN ARLOAN GARATUA IZATEKO SESTAOKO UDALAREN LAGUNTZA JASO DUENA:

2.- EGINDAKO JARDUEREN MEMORIA ZEHATZA ETA LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA. (Memoria hori dokumentu honetan bertan transkribatu daiteke, edo Justifikazio-kontu Sinplifikatu honi erantsitako dokumentu batean; kasu horretan, dirulaguntzaren onuraduna den erakundearen ordezkariak sinatu beharko du. Memoria horrek, jarduerak zehatz-mehatz identifika daitezkeen hartzaileak dituztenean, hartzaileen kopuruari buruzko informazioa jaso beharko du, sexuaren arabera banatuta. Horrez gain, jarduerak emakume eta gizonen arteko berdintasunean izan dezaketean eraginari buruzko informazioa ere jasoko da.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

3.- SESTAOKO UDALAK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZARI LOTUTAKO PROGRAMAREN ONDORIOZ IZANDAKO GASTUEN ZERREDA SAILKA ZEHAZTUA, KONTZEPTUA, HARTZEKODUNA, ZENBATEKOA ETA JAULKIPEN-DATA ADIERAZITA. (Memoria hori dokumentu honetan bertan transkribatu daiteke, edo Justifikazio-kontu Sinplifikatu honi erantsitako dokumentu batean; kasu horretan, dirulaguntzaren onuraduna den erakundearen ordezkariak sinatu beharko du).

4.- JUSTIFIKAZIO-KONTU SINPLIFIKATU HONI ERANTSI ZAIZKIO, FAKTURAK EDO MERKATARITZAKO TRAFIKO JURIDIKOAN FROGA-BALIO BALIOKIDEA DUTEN DOKUMENTUAK, EDO ADMINISTRAZIO-ERAGINKORTASUNA DUTENAK. HORIEN GUZTIZKO ZENBATEKOA, GUTXIENEZ, SESTAOKO UDALAK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN BERDINA DA. BERARIAZ ADIERAZTEN DA AGIRI HORIEK JATORRIZKOAK DIRELA ETA EZ DUTELA BESTE DIRU-LAGUNTZA PUBLIKO EDO PRIBATURIK JASOTZEN (Justifikazio-kontu sinplifikatu honetan, erantsitako fakturak zerrendatu behar dira, eta bakoitzari dagokionez, kontzeptua, hartzekoduna, zenbatekoa eta jaulkipen-data identifikatu behar dira).

5.- SESTAOKO UDALAK EMANDAKOAZ APARTEKO DIRU-SARRERA EDO DIRU-LAGUNTZA PUBLIKO EDO PRIBATUEN XEHETASUNAK, UDAL HORREK DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREI LOTUAK DIRENAK, ZENBATEKOA ETA JATORRIA ADIERAZITA:

Sestaon,2026koarenn.
jaunak/andreak sinatua

Bigarrena.- Onartzea berrogei mila (40.000) euroko gastua, erabaki honen lehenengo puntuan onartutako deialdiak aipatzen dituen dirulaguntzak emateko.

Hirugarrena.- Udaleko kontu-hartzaileak neurri egokiak har ditzala oinarri hauei, deialdiari eta ebazpenari buruzko informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari bidaltzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz.

Laugarrena.- Argitaratzea Erabaki hau lege ezarritako baldintzetan eta Udaleko Kontu-hartzaileari jakinaraztea".

Transkribatutako ebazpenaren aurka, administrazio-bidea amaitzen baitu, honako ERREKURTSO hauek aurkeztu ahal izango ditu, txandaka:

a) AUKERAKO BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA, Sestaoko Udal honen aurrean, HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua).

Errekurtso hori jarritz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta berariaz ebatzi arte edo haren ustezko ezespena gertatu arte; hori gertatuko da, errekurtsoa jarri zenetik hilabete igaro eta haren ebazpenaren jakinarazpenik jasotzen ez bada.

Azken kasu horretan, halaber, SEI HILABETEKO epea izango da, errekurtsoa jarri den egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, presuntziozko egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Sekzioan".

b) ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Sekzioan, BI HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikulua).

c) Egokitze jotzen den beste edozein.

Sestaon, sinadura digitalaren datan.
Gizarte Ekintza eta Berdintasun Arloko Zinegotzi Ordezkaria,
Iz.: Josune Serapio Gelado



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

20/20